

Beasain Skate Herria izango da abenduaren 30ean

Azken eguneratzea: Asteartea, 21 Abendua 2021 20:29

Argitaratua: Asteartea, 21 Abendua 2021 18:51



Udalak antolatuta, Pump track pistan skate eguna ospatuko da. Musika, ikuskizunak, zozketak eta skatean ikasi edo trebatzeko ikastaroetan parte hartu ahal izango da aurretik izena emanda

Bi urte bete dira urrian Beasaingo Pump track pista berria estreinatu zenetik. Azpiegitura honek beasaingarren artean izaten ari den arrakasta ukaezina da. Hori ikusirik, azpiegiturari eta baita kirol honi bultzada eman asmoz, Udalak Beasaingo lehen Skate eguna antolatu du.

Abenduaren 30ean Beasain Skate Herria izango da. Hori dela eta bertan parte hartzera deituta daude patinak, patineteak eta gurpil gainean irristatzen den edozein gailu erabiltzen duen oro.

Skate ikas-saioetarako izen ematea zabalik

Eguna borobiltzeko egitaraua antolatu da. Goizean hasi eta

Beasain Skate Herria izango da abenduaren 30ean

Azken eguneratzea: Asteartea, 21 Abendua 2021 20:29

Argitaratua: Asteartea, 21 Abendua 2021 18:51

arratsaldean amaituko diren hainbat ekitaldi daude iragarrita. Goizeko Hamarretan skate klaseak hasiko dira. Bi ordu iraungo dute eta parte hartzeko alde z aurretik izena ematea beharrezkoa da. Horretarako aukera ezberdinak daude: Antzizar kiroldegira bertaratuz, whatsapp-ez 690 000 547 zenbakian edo [helbide honetan](#) dagoen galdetegia betez. Bakoitzaren mailaren arabera ikastaroak egingo dira.

Eguerdiko hamabietan ikuskizun profesionala eskainiko da bi gonbidatu berezirekin; Alazne Aurrekoetxea eta Maria Elosegia.

Arratsaldean berriz lau t'erdietan skate librerako tartea izango da eta bi ordu beranduago sei t'erdietan emango zaio amaiera egunari. Jardunaldia girotzeko musika eta surf skate skateboard baten zozketa egingo da parte hartzen dutenen artean.

Beasain Skate Herria

Skate Herria ekimena, Euskal Herrian skate mugimendua bultzatzeko ekitaldiak dira. Helburua, skate komunitateak sortzea da, skatearekin ikasi eta skate ekitaldiez gozatuz. Oraingoan kirol honen zaleak Beasainen dute hitzordua.

BEASAINGO SKATE EGUNA

BEASAIN EDO INGURUETAKOA BAZARA ETA SKATEAN IBILTZEN IKASI, HOBETU,
ETA GUSTUKO BADUZU HAU DA ZURE EGUNA!

ABENDUAK 30

**BEASAINGO
PUMPTRACK EAN**

ZER DA SKATE HERRIA?

Skate Herria Euskal Herrian Skate mugimendua bultzatzeko ekitaldiak dira, helburu berarekin : Komunitateak sortzea, ikasi eta ekitaldiez gozatuz. Oraingoan, Beasainen elkartuko gara

PROGRAMA

10:00 SKATE IKAS SAIOAK
12:00 SKATE IKUSKIZUNA
16:30 SKATE LIBREA
18:30 EGUNAREN ITXIERA

ZER EGINGO DUGU EGUNEAN ZEHAR?

Zure mailaren arabera ikastaroak egingo ditugu goizean, horrez gain bi Gonbidatu bereziren eskutik ikuskizun bat izango dugu. Arratsaldean skate librea izango dugu, bakoitzak bere trebeziak erakusteko. Egun osoan zehar giro ezinhobea izango dugu!

IKUSKIZUNA

ALAZNE AURREKOTXEA
MARIA ELOSEGI

FREE



**SURF SKATE
SKATEBOARD
BATEN**

ZOZKETA!

MUSIKA



**SURF SKATE
ARROPA**



SKATE
SAIOETAN
PARTE
HARTZEKO



vicuña
sport

THE WOODDETAIL
CO.
SURFSKATES



Beasain Udalak

SKATE
HERRIA